

**EKINTZAILEENTZAKO TOKI-PROIEKTUEN ESPARRUAN,
UROLA KOSTAN
ENPRESA-JARDUERA BERRIAK ABIAN JARTZEA SUSTATZEKO DIRU-
LAGUNTZA PROGRAMAN PARTE HARTZEKO HAUTAKETA PROZESUA**

EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 26koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, ekintzaileei laguntzeko 2023ko dirulaguntzen deialdia argitaratzeko dena.

I.- Eskatzailearen identifikazioa


Izen-abizenak		NAN	
Helbidea		Udalerria	
Telefono-zk.		E-maila	

II.- Eskatzaileak bete beharreko baldintzak

- Urola Kostan (Aia, Getaria, Orio, Zarautz, Zumaia) erroldatuta eta zinezko egoitza izatea.
- Langabea izatea eta enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egotea Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan.
- Urola Kostan (Aia, Getaria, Orio, Zarautz, Zumaia) enpresa edo negozio berri bat martxan jartzeko bideragarritasun-plana edukitzea.
- Bezero bakar bati zuzendutako jarduera ez izatea.
- Aurreko urtean alta emanda ez egotea ez Ekonomia Jardueren gaineko Zergan ez eta Langile Autonomoen Araubide Berezian ere.
- Aurreko deialdietan, enpresa-idea bat garatzeko edo enpresa-jarduera berriak abian jartzeko laguntzen onuradun ez izatea –Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ekintzaileei laguntzeko kudeatu dituen deialdietan jasota dauden laguntzak–.
- Xede bererako beste diru-laguntzarik ez jasotzea

III.- Pertsona eskatzaileak hartzen dituen konpromisoak

- Enpresa edo negozioa martxan jartzen soilik aritzea.
- Erakunde honek enpresa edo negozioa martxan jartzeko antolatutako aholkularitza- eta laguntza-jarduera guztietan parte hartzea.
- Egindako jarduerak zehazten dituen azken memoria eta bideragarritasun plana aurkeztea erakunde laguntzaileari, laguntza-prozesua amaitu ondoren eta deialdian ezarritako epean. Erakunde laguntzaileak baliozkotzat jo beharko ditu memoria eta bideragarritasun plana, eta memoriaren edukiak lan-plangintzaren eta lortutako emaitzen jarraipena egitea ahalbidetu beharko du.



- Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta ematea 3 hilabeteko epean gehienez ere, negozioa martxan jartzeko tutoretza- eta laguntza-prozesua amaitzen denetik kontatzen hasita.
- Enpresa-jardueraren egoitza soziala eta fiskala Urola Kostan jartzea, eta lantokia ere Urola Kostan kokatzea.
- Etorkezunean xede bererako diru-laguntzarik ez eskatzea.

IV.- eskatzailearen erantzukizuneko adierazpena

- Ez dut xede eta helburu hau bera duen laguntzarik jaso herri-administrazioen eskutik
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako eta izaera berekoak diren laguntza edo diru-laguntzek eragindako itzultzeko edo zehatzeko prozeduren eraginpean ez nago.
- Ez nago Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 artikuluan aipatzen diren egoeretan, diru-laguntzen onuradun-izaera lortzeko, ezta sexu-diskriminazioa egiteagatik diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zehatuta ere, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak xedatutakoaren arabera.
- Eskaezan ekarpen gisa emandako dokumentuak eta datuak egiazkoak dira.
- Deialdian eskatutako baldintza guztiak betetzen ditut.

Egin gurutze bat dagokion laukian

V.- Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentuen zerrenda

- Eskatzailearen NANaren fotokopia
- Eskatzailearen erroldako datuak elektronikoki egiaztatzeko baimena
- Eskatzailea langabezian dagoela eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille gisa egiaztatzen duen ziurtagiria (langabetzat hartuko da lanaldi partzialeko kontratuarekin eta % 30eko edo hortik beherako lanaldiarekin ari denean)
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dauzkatala egiaztatzeko baimena
- Gizarte Segurantzaren bizitza laborala
- Curriculum Vitae-a
- Enpresa-ideiaren aurkezpena
- Eskatzailea "Gizatalde bereziko" parte dela egiaztatzen duen agiria

Egin gurutze bat dagokion laukian

.....(e)n, 2023koren(e)(a)n

Sinadura (izen-abizenak)